



## **AERGI-k Alkoholik Gabeko Egunarekin bat egin du, ``Voces Sin Alcohol`` ekimenarekin.**

*``Voces sin Alcohol`` AERGI-n tratamenduan dauden pertsonak osatzen dute. Koru bat sortu dute, elkarri laguntzeko eta norberaren burua gainditzeko gune seguru bihurtuz.*

*Datorren larunbatean, azaroak 23an, Olaraingo auditorioan arituko dira AERGI 2024 – I Ángel Jiménez Memorialaren Topaketarekin bat eginez.*

*Topaketan, gainera, espezialista ospetsuak izango dira, hala nola, Francisco Pascual doktorea eta Fernando Gil Villa psikologian katedraduna.*

Bihar mundu osoak Alkoholik Gabeko Eguna ospatuko du, data horren bidez arazo horri ikusgarritasuna emanez. OMEren arabera, alkoholak 3 milioi pertsona baino gehiago hiltzen ditu urtero, gehiengoa gizonak izanik. Kalkuluaren arabera, munduan 237 milioi gizonak eta 46 milioi emakumeak dituzte alkohol-kontsumoagatik nahasmenduak, eta ohikoagoak dira erosteko ahalmen handieneko herrialdeetan. Euskadin mendekotasun ohikoena da; izan ere, 75 litro alkohol hartzen ditugu pertsona bakoitzeko urtean, Estatuko batez bestekoaren antzekoa, eta Europakoa baino txikiagoa, non biztanle bakoitzak, batez beste, 95 litro alkohol edaten ditu urtean.

### **Koru bat terapia gisa**

Mendekotasunen aurkako tratamendua jasotzen ari diren pertsonak berreskuratzeko eta laguntzeko konpromisoaren barruan, AERGIk egun hori aprobetxatu nahi du ``Voces Sin Alcohol`` aurkezteko, ekimen berritzaile eta terapeutikoa. Urtebeteko lanaren eta prestakuntzaren ondoren, datorren larunbatean jendaurrean arituko da, AERGI 2024 Topaketan, Alkoholik Gabeko Eguna dela eta.

AERGI tratamenduan dauden pertsonak osatzen dute abesbatza, eta adierazteko, elkarri laguntzeko eta norbera gainditzeko gune seguru bihurtu da. Jarduera duela urtebete hasi zen elkartearen programa terapeutikoaren barruan, eta frogatu da baliabide baliotsua dela mendekotasunak gainditzeko borrokan ari direnentzat. Kantu kolektiboa praktikatzek trebetasun artistikoak garatzen laguntzeaz gain, parte-hartzaile bakoitzak bere errehabilitazio-prozesuarekin duen konpromisoa indartzen du, autoestimua, talde-lana eta komunitate-zentzua sustatuz.



Abentura honi aurre egiteko, abesbatzak Adrian Lado Musikeneko Orkestra eta Abesbatza Zuzendaritzako ikaslearen zuzendaritza du.

Datorren azaroaren 23an, ``Voces sin Alcohol`` igoko da agertokira, eta lau abesti interpretatuko ditu AERGI 2024 – I Ángel Jiménez Memorialaren Topaketan egingo duen estreinako ekitaldi ofizialean. Ekitaldi honek ez du bakarrik musika ospatzen, baizik eta koruko kide bakoitzak alkoholik eta adikziorik gabeko bizitza lortzeko egiten duen ahalegina eta dedikazioa.

AERGIko zuzendari Josean Fernándezentzat, *mendekotasuna duen pertsona orok gainditu beharreko irakasgaietako bat gizarte-harremanak dira. Beraien komunikazioak, eta jende desberdin, kontrako, arazo desberdinekin, baina gaixotasun berdinarekin abesteak, harreman eta komunikazio giro bat ematen du, nik ezagutu ez dudana eta urte asko daramatzat honetan.*

Adrianek, abesbatzaren zuzendariak, *esperientzia zoragarri gisa deskribatzen* du proiektua, izan ere, musika, maila terapeutikoan, oso tresna indartsua da, talde-lanaren alde kolaboratiboari zein osasun fisikoari laguntzen diona. Koru bat izanik, abesteko, osasun fisiko mentala behar duzu, emozionala, eta hori lantzen ez bada eta edukitzen ez bada, ez da emaitzarik ikusten. Bizitzak dituen edo errutina txarra duten aurreiritzien kontu guztiak kendu behar dira, ahotsa atera dadin eta hori da arrakastaren gakoa. Koruan konpromiso handia ikusten dut eta ingurune zoragarria da.

Jarduera horrekin, AERGIk berretsi egiten du tratamenduan dauden pertsonen sormenezko tresnak eta tresna inklusiboak eskaintzeko asmoa duela, eta errehabilitazioa esperientzia eta lorpen pertsonal berriez beteta egon daitekeela erakusten du

### **Larunbatean, hilak 23, herritarrentzako topaketa irekia**

AERGIk Alkoholik Gabeko Egunaren ospakizuna hilaren 23ra (larunbata) eramango du, Donostiako Olarain Ikastetxe Nagusira hurbildu nahi duen orori ireki ahal izateko. Jardunaldia arratsaldeko 16: 30etan hasiko da eta Pilar Leal Espainiako Alkoholikoen, Errehabilitazio Mendekotasunen eta Senideen Konfederazioko (CAARFE) presidentek emango dio hasiera topaketari. Ondoren, Francisco Pascual UCA Alcoi koordinatzaile medikoa, CAARFEko aholkulari teknikoa eta Tabakismoaren Prebentziorako Batzorde Nazionaleko presidentea (CNPT) eta Fernando Gil Villarekin (Salamankako Unibertsitateko Soziologiako katedraduna, idazlea eta poeta) hitz egingo dute.

Aurten, utzi gaituzten (gurekin ez dauden) AERGIko erabiltzaileei omenaldiak egiteko eta aitortpenak babesten gaituzten elkarteentzako denbora ere egongo da.



Topaketara doan joateko, aergi.es webgunera sartu eta gonbidapena jaitsi  
besterik ez da egin behar.

**AERGI – ÁNGEL JIMÉNEZ MEMORIALAREN I. TOPAKETA**

Eguna: Azaroak 23, larunbata

Ordua: 16: 30ean.

Lekua: Olarain Ikastetxe Nagusia, Ondarreta pasealekua 24 (Donostia).

**Prensa kontaktua**

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 609491422 telefonora (Martin).